

Egunak eta gauak

Laida Martinez

Julene Azpeitia ipuin lehiaketa
2002



Zumaiaiko Udala

emskar txanpa



Egunak eta gauak

Laida Martinez

Julene Azpeitia 15. ipuin lehiaketa

2002

2. saria

Zumaian Julene Azpeitia ipuin lehiaketaren 25. urteurrena ospatzeko egindako digitalizazioaren emaitza, 2012ko irailean.

© Laida Martinez (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Laguntzailea: KUTXA

*** *Gaua***

Amaiarekin topatu naiz Areto tabernan arratsaldeko zortzietan. Sarreran ikusi eta negozio berezi bati buruz hitz egiteko esan dit. Baietz erantzun diot, jakina. Sosik gabe nabil eta Amaiaren negozioak oso interesgarriak izaten dira beti dirua lortzeko. Amaia mutil batekin zegoen, beltzaran altu batekin. Iñaki. Ez nuen ezagutzen eta hasieran sor eta lor geratu naiz, Amaia Iñakiren aurrean kontu guztia azaltzen hasi baita, baina Amaiak berehala azaldu dit Iñakik eta berak askotan jardun dutela elkarrekin horrelako negozioetan eta Iñaki jatorra dela, fidatzeko modukoa.

Iñakik azaldu du Donostiakoa dela, Bilbora etorri dela unibertsitatean ikastera. Adina galdetu diot eta hogeitau dauzkala erantzun dit. Harrituta geratu naiz gazteago ematen baitu. Nik hamasei dauzkat eta Amaiak hamazazpi. Iñakik kontatu dit Bilbon primeran pasatzen duela: etxebizitza alokatu batean bizi da eta bere kabuz lortzen du dirua.

Ondo antolatuta dauka bizimodua. Hori suertea!

Institutuan nagoela esan diot nik, baina ez zaidala batere gustatzen. Ez diot azaldu oraindik gurasoekin bizi naizela. Lotsa eman dit. Ez dut gehiago esan, eta berak ere ez. Pare bat pastilla atera du praktako poltsikotik eta bana eman digu Amaiari eta bioi; ondoren egunen batean bere etxera joateko esan digu, ondo pasako dugula.

Mutil jatorra iruditu zait. Gainera katxarro dago, bai horixe!

Pastilla irentsi eta dantzan izan gara ordu txikiak arte. Nekaezinak.

Amaiarekin ez naiz ezertan geratu.

Berandutxo heldu naiz etxera, biluztu, ohean etzan eta lo seko geratu naiz bost segundoan. Larunbatak asteko egunik onenak dira.

*** Eguna**

Gurasoak, sesioan. Betikoa. Oihuka ibili dira goizeko lehenengo ordutik, eta eguerdian aitak danbateko batez alde egin du etxetik. Ondoren, amari entzun diot etengabeko paseoa gela batetik bestera: telefonoa hartu eta amonari deitu dio. Negar zotinka izan da hitz egin bitartean. Gehiegi. Gainera telefonoa okupatuta, ezin izan diot Amaiari deitu.

Kaka zaharra. Pastillak amaitu zaizkit.

*** Eguna**

Institutua etxetik hurbil dago. Hamar bat minutura. Pasa den astean, egunero bide berberean egitean zenbat denbora neraman alferrik galduta kalkulatu nuen. Kristona. Ordu asko eta asko. Instituturako bidea ez da polita: eraikin itsusiak, arropaz beteriko balkoiak, izkina guztietan zabor-poltsak. Udan kiratsa jasanezina da.

Auzoa nazkagarria da, hori pentsatu dut etxetik atera orduko. Arineketan irten naiz presarik eduki ez arren. Adio ere ez dut esan. Sukaldean eserita geratu da ama, kafez beteriko kikara aurrean, ilea harrotuta, oinutsik, pijaman. Amak ez dit txintik esan. Ez dut aita ikusi.

Instituturako bidean klaseko batzuekin topatu naiz. Eroarena egin eta ez diet ezer esan. Haiek ere ez. Aurreko espaloitik begira geratu, eta marmarka hasi dira. Aluak. Institutuko gehienek ez didate hitz egiten. Hobeto. Ergel hutsak dira. Ez dakite ezer eta zomorro arriskutsua banintz bezala tratatzen naute. Tontolapikoak. Edozein egunetan nekatu egingo naiz eta institutura joateri utziko diot. Nazka ematen dit horra egunero joan beharrak; nazka, irakasleen txapa jasan beharrak; nazka, kideen aurpegi inozoek. Baboak besterik ez da hor ikusten.

Gogorik gabe igo ditut klaserako eskailerak neka-neka eginda bainago, burua astun; Inakiren pastillak onak ziren antza, zeren eragina ez baitzait oraindik pasa. Nire lekuan jesarri orduko begiak itxi zaizkit, eta ez ditut zabaldu irakaslea sartu arte: txapa ematen hasi, eta begira geratu natzaio. Zientziak. Ez diot hitzik ere ulertu. Enteratu ez. Erdi lotan geratu naiz atsedena dia noiz helduko zain.

Sosik gabe nabil eta dirua lortzeko zer edo zer behar dudala, horixe errepikatu diot Amaiari. Komunean elkartu eta hauts pixka bat pasa dit. Ona. Kontua da ezin izango diodala hauts hori ordaindu. Argi eta garbi esan diot. Amaiak ez kezkatzeko erantzun dit, Inakirekin negozioetan dabilela eta laster proposatuko didala zer edo zer. Zein negozio mota diren horiek galdetzean, eroarena egin, eta ez dit erantzun izan nahi.

Hasieran jakin-minez geratu naiz, baina berehala pasa zait, hautsa sartu bezain laster. Amaiak ispilu txiki bat zeukan eta pare bat marra egin du gainean. Bana sartu dugu sudurretik. Buuu!... Kezka guztiak ahaztuta. Bitartean, sekulako ilara egin da komunetik kanpo eta ateratzean, errieta. Batzuek esan digute ezin dela atea hain luzaro itxita eduki. Haserre zeuden. Doazela pikutara. Ez diegu puto kasurik egin eta barrez alde egin dugu. Aluak.

Gaurko klaseak aspergarri oso izan dira. Leihotik begira eman dut denbora, ezer pentsatu gabe. Gero gogora etorri zaizkit Iñakiren negozioak eta matematikako irakasleak txapa bota duen bitartean, zer-nolako negozioak izango diren imajinatzen saiatu naiz. Lehen egunean bere kabuz bizi dela esan zigun Iñakik. Bada horretarako dirua behar da. Horixe da nire ustea... Eta etxebizitza eta guzti daukala. Hori bai suertea! Gero zuriz geratu naiz tarte batez, eta ondoren, berriro gogoratu naiz Iñakiz: katxarro dago, gustuko dut.

Matematikako azken azterketaren emaitza eman digu irakasleak. Huts.

Bost axola.

Hautsak hori dauka: emaitza ikustean ez dut txintik esan. Beste huts bat, eta zer?

Asteburua, asteburua. Zein urrun dagoen. Lanegunak nazkagarriak dira, eta ostiral gaua noiz ailegatuko zain nago. Amaiarekin geratu naiz. Iñaki ere etorriko dela esan dit. Areton geratu direla eta hitz egingo dugula. Ederto.

**** Eguna***

Etxea gorroto dut... gurasoak ere bai. Ez dut institutua jasaten... ezta institutukoak ere!

Kakatara guztiak.

**** Gaua***

Iñakirena gehiegi da, badirudi poltsikoak materialaz beterik daukala. Eta jatorra da, erruz banatzen du: hautsa nahi baduzu, hautsa; pastilla nahi baduzu, pastilla. Eta tragoak ere bai. Gaur edari guztiak ordaindu dizkigu Amaiari eta bioi. Alkohola, pastillak eta hautsa. Berarekin egonda, di-da pasatzen da denbora. Bederatzietan Areton elkartu eta handik beste leku askotara joan gara.

Iñaki asko gustatzen zait oso heldua baita. Asko daki. Aretoko eta horrelako lekuetako mutilak gogaikarriak dira. Ez dakite ezer.

Primeran pasa dugu eta berriro geratu gara bihar arratsalderako. Iñakik bere etxera eramango gaitu, eta bertan hitz egingo dugu negozio bati buruz.

**** Eguna***

Gurasoek su-etena sinatu dute, antza. Gaur ez da oihurik egon.

**** Gaua***

Goizeko bostetan oheratu naiz neka-neka eginda. Atzo primeran pasa genuen

Arratsaldean elkartu ginen, eta buelta bat eman ondoren, Iñakik esan zigun Alde Zaharrekoa ez zela girorik eta bere etxera joateko, askoz hobeto pasako genuela. Hara joan ginen hirurok. Tragoak eta kanutoak. Jaia animatzeko Iñakik bideo porno bat jarri zigun telebistan eta ohean etzanda ikusi genuen. Amaia barrez zebilen ohean iraulika. Niri, berriz, pelikulak hotz utzi

zidan. Ez gatz ez berakatz; hortaz ez nuen txintik esan. Are gutxiago lñakik pornoan diru pilo bat mugitzen dela azaldu zuenean. Isildu egin nintzen tuntuntzat ez geratzeko. lñakik gauza pilo bat kontatu zigun horretaz. Ondo ezagutzen du negozioa, antza. Hitz egin bitartean, hauts-marra batzuk egin, eta bana sartzeko esan zigun Amaiari eta bioi. Itzela. Sudurretik gora sartu eta gero, ohe gainean etzan nintzen, pantailara begira ezer pentsatu gabe. lñakik hautsa utzi eta edari batzuk ekarri zizkigun: vodka. Ahalik eta lasterren edateko esan zuen, hautsarekin batera vodkak eragin itzela baitauka. *Bat, bi eta hiru... Euup!...* Barrura. Urdailera jaitsi eta burura igo. Vodka hotz-hotz zegoen.

—*Hau da hau!*

Horrelako bat grabatzeagatik diru pilo bat ordaintzen dutela azaldu zuen lñakik pantailatik begirada kendu gabe. Amaia ados egon zen, eta ni ere bai, baina isilik geratu, eta zurrutada eman nion edalontziari. Zuriz neukan burua, arinduta.

Txintik esan gabe begiratu genuen pantailara, ondoren lñakik azaldu zigun pelikula pornoak grabatzen dituen morroi bat ezagutzen duela, eta morroi horrek batzuetan hautsa oparitzen diola.

—*Diru asko dauka...*

Beste marra bana sartu genuen. Prestatu ondoren, lñakik bere lagun horrek mesedetxo bat behar zuela esan zidan. Ondo ordainduko zidala. Eta ea prest nengoen egiteko.

—*Egongo ez naiz, bada!...*

A-a-a-a-a-a-a-a-a-a...! Telebistako pelikula amaitzearekin batera, astean zehar hitz egingo dugula esan zidan lñakik. Lasai egoteko, berak deituko didala. Etxera joan baino lehen beste hauts pixka bat pasa zidan. Doan. Eskerrak, sosik gabe nabil eta.

lñaki oso mutil jatorra da. Eta oso listoa.

****Eguna***

Gaur etxe zuloan geratu naiz. Zelako nazka. Gurasoekin jesarri naiz telebista aurrean eta horrela eman dut arratsalde guztia. Inork ez du txintik esan. Aita koñaka kopari zurrutadaka ibili da denbora guztian, eta ama kate batetik bestera *zapingka*. Zortzietan aitak zapatak jantzi eta aterako zela esan du. Amak harekin eramateko eskatu dio. Aitak ezetz. Sesioan hasi dira berriro. Horiek oihuak. Logelara joan naiz segidan. Horrela hasten direnean hobe da hurbil ez egotea.

Ohean etzan naiz, burua burko azpian. Alferrik. Oihuak berdin-berdin entzun ditut.

Etxe honetakoa jasanezina da.

Pikutara.

****Eguna***

Berandu heldu naiz goizeko lehenengo klasera eta atezainak ez dit sartzen utzi. Kabroia. Geroago, hirugarren klasean geundela, zuzendaria sartu

eta berarekin joateko esan dit. Klaseko guztiak begira geratu zaizkit eta batzuk marmarrean ibili dira ni atera bitartean. Gorri-gorri jarri naiz. Putakumeak.

Gurasoekin hitz egin nahi duela, halaxe esan dit zuzendariak. Huts pilo bat dauzkadala eta klase askotara ez naizela joan. Jai dauka, argi eta garbi esan diot: gurasoak lanpetuta dabilta, ez daukate denbora alferrik galtzeko gogorik. Zuzendaria sutan jarri da. Zer edo zer emango ziola iruditu zait. Zuzendariak ez daki ezer. Puta ideiarik ez. Telefonoz deituko diela esan dit.

Ederto. Egin dezala nahi duena. Eta pikutara guztiak.

Goiza amaiezina izan da. Klasera bueltatu eta jesartzerakoan, klasekoak niri begira harrapatu ditut. Goiz guztian ibili dira horrela. Begira eta marmarrean.

Goroto diot institutuari. Astelehenak nazkagarriak dira oso... astelehenak, astearteak eta gainontzeko lanegun guztiak ere bai. Klasekoak tontolapikoak dira, mukizuak, eta irakasleak inozoak eta kuxkuxeroak. Kuxkuxero hutsak.

Klaseak amaitutakoan, Amaiaren bila joan naiz. Ez dut bere ikasgelan ikusi. Kaka zaharra. Pastillarik gabe nabil, sosik gabe eta lñakiz gogoratu naiz. Ea deitzen didan behingoz. Zer edo zer egin behar dut diru pixka bat eskuratzeko.

Oso urduri egin dut etxerako bidea. Heldu orduko, logelara joan eta lñakik oparitutako hautsa sartu dut sudurretik. Bakea: bost axola zuzendariak, bost axola institutuak, bost axola guztiek... Edozein gauza egin dezakedala iruditu zait. Edozein gauza egiteko gai naizela.

Gurasoei ez diet aipatu zuzendariak esandakoa. Heltzean, ama ikusi dut logelan. Ohean etzanda zegoen eta sabaira begira. Ez du ez bazkaririk ez afaririk prestatu. Gogorik ez zeukala esan dit. Bokata bat jan dut. Aita ez da agertu, egun osoan ez dut ikusi.

Nola edo hala lortu behar dut dirua.

*** *Gaua eta eguna***

Zaratak esnatu nau. Kristolako bronka. Aita oso berandu heldu da etxera, antza. Nik ez dut sartzen sentitu eta lehenengo oihuak entzun arte ez naiz ezertaz enteratu: ama *putakumea* eta *kabroia* oihukatu dio. Aitak *alferrontzi halakoa* eta *zerri zikina* erantzun. Aita mozkortuta zegoen. Hori atxurra. Logelatik ibili da ukabilka altzarien aurka eta ama haren atzetik irainka. Horrela egon dira luzaro. Auzokide batek leihora atera eta isiltzeko oihukatu die. Eta beste batek ere bai. Eta beste batek. Bigarren solairukoak poliziari deitu nahi izan dio, ez zegoela eskubiderik errepikatu du behin eta berriz. Horren ondoren, gurasoak isildu, eta auzokideek poliki-poliki itxi dituzte leihoak.

Ez dut ondo lo egin.

Goizean ez dut ama ikusi. Ezta aita ere. Lokartu egin naiz eta korrika batean atera behar izan dut. Berrito heldu naiz berandu institutura, baina gaur inork ez dit ezer esan. Hobeto. Buruko mina eduki dut goiz guztian, eta ez neukan inoren txapa jasotzeko gogorik.

Atsedendian Amaiaren bila joan naiz. Ikasgelara sartu eta begira geratu zaizkit denak. Batzuk burua jiratu dute nirekin ez hitz egiteko. Bost axola. Joan

daitezen pikutara. Institutuan baboak eta mukizuak baino ez dago. Ez dakite ezer.

Goiza oso luze egin zait eta klaseak amaitu eta etxera ailegatutakoan, amak institutuko batek deitu diola esan dit, gizonezko batek, nitaz kexatzeko. Amak begiak gorri-gorri zeuzkan, ilea apaindu gabe eta aurpegia zurbil, pijaman zegoen eta oinutsik. Hitz egin bitartean, hormaren aurka etzan da eta begiak itxi ditu. Ez diot ezer erantzun, begira geratu natzaio isil-isilik. Berak ere ez dit gehiago esan. Gaur nekatuta eta logura sentitzen dela, hori eta besterik ez. Ohera bueltatu da.

Galleta batzuk aurkitu ditut sukaldean, hartu eta sofan etzanda eman dut arratsaldea. Hau egun nazkagarria. Lau aldiz deitu diot Amaiari: seietan, zortzietan, bederatzi eta erdietan eta hamarretan. Azken aldian berriro ez deitzeko esan dit Amaiaren amak, Amaiak berak deituko didala, errekadua pasako diotela. Nik uste, Amaiaren ama nirekin haserretu dela hainbeste aldiz deitzeagatik. Joan dadila pikutara. Eta Amaia ere bai.

Lokartu ezinik mugitu naiz ohean jira-biraka. Argi dago nik neuk moldatu beharko dudala modu batera edo bestera.

Ordu biak arte ibili naiz horrela eta, azkenean, loak hartu nau. Ez dut aita etxera sartzen entzun. Kanpoan egin du lo, antza.

****Eguna***

Poltsa bat hartu eta helbide batera eraman. Horixe da dena. Iñakiren lagunak, pelikula pornoak egiten dituenak, ez du gehiago behar. Baietz esan dut, jakina. Hamabost mila ordainduko didate. Horrekin pastillak erosiko ditut. Eta hautsa. Asteburu hau primerakoa izango da, ziur.

Pozarren nago.

****Eguna***

Di-da.

Errekadua eginda dago, dirua patrikan.

Poltsa barruan zegoenak ez nau kezkatzen. Bost axola.

****Gaua***

Morroi batek zabaldu dit atea. *Bom, bom, bom!* Musika pizturik zegoen, eta etxean ezagutzen ez nuen jende pilo bat. Hasieran moztuta geratu naiz zer egin jakin gabe, baina laster Iñaki pasilloan agertu, gerritik heldu, eta musu bat eman dit ahoan. *Bom, bom, bom!* Egongelan Amaia ikusi dut mutil batekin dantzan. Barrez zebilen edalontzia esku batean, eta kanutoa bestean. Ikusi nauenean, keinu bat egin dit buruaz eta saltoka eta jira-biraka jarraitu du. *Bom, bom, bom!* Neuk ere beste keinu bat egin diot, eta begira geratu naiz apur batez. Bitartean, atea zabaldu duen morroiak edari bat pasa dit. *Vodka. Bom, bom, bom!* Morroiak Negro du izena, Iñakik berak aurkeztu dit, hirurok logelara joan garen bitartean. *Bom, bom, bom!* Negrok ez du hitzik esan Iñakik hautsa atera duenean. Ohean jesarri, eta begira geratu zait nik marra pare bat

mesanotxe gainean egin, eta sudurretik gora sartu ditudanean. Itzela. Iñakik berriro musukatu nau ahoan, eta barre egin du baxu-baxu, gero pastilla bat atera eta hartzeko esan dit. Horrek grazia handia egin dit, ez dakit zergatik. Pastilla hartu eta edariaren trago batez irentsi dut. *Bom, bom, bom!* Negro ez da mugitu denbora guztian. Edalontzia hartu, eta zurrutadaka hustu du poliki-poliki, begirada gure gainetik kendu gabe.

Hamar minututan ez dut ezer sentitu. Hortaz, pasillora atera eta dantzan hasi naiz geldiro. Gero, gorakada bat-batean etorri, eta primeran utzi nau. Gehiegi. *Bom, bom, bom!* Egongelara bueltatu naiz dantzatzeko eta ondo pasatzeko irrikan.

Hamabiak arte eman dut dantzan, jira-biraka eta barrez. Primeran pasa dut, benetan. Hamabietan, norbaitek musika itzali, eta Iñaki, Amaia, Negro eta laurok izan ezik, denek alde egin dute. Amaia sofa gainean etzan da guztiz mozkorturik. Negro isilik jesarri da bere ondoan, xiringa bat atera eta bere besoan iltzatu du, gero xiringa Amaiari pasa, eta berak ere erabili du. Eta gero Iñakik. Eta gero nik. Inork ez du ezer esan. Negrok burua atzerantz bota eta begiak itxi ditu. Iñakik ilea ferekatu dit astiro. Amaia negarrez hasi da baxu-baxu.

Iñakiren etxean lo egin dugu laurok.

****Eguna***

laz institutuko batekin ibili nintzen txortan. Patxorekin. Institutuko gimnasioan antolatutako jai batean ligatu eta patiora irten ginen litrona edatera. Gonbidatu egin ninduen. Inozoa. Litrona bere klasekoena zen, ezkutuan sartua zuten institutura, eta eskuz esku pasa genuen hustu arte: kola eta whiskya. Neu nintzen mutilekin zegoen neska bakarra. Eta zer. Botila amaitzean, berdin-berdin geunden denok.

Patxo guapoa zen. Eta gimnasioan jatorra iruditu zitzaidan, baina txortan egin ondoren, institutuko guztiak enteratu ziren. Irakasleak ere bai. Putakumea. Unibertsitatean dago aurten. Ez dut berriro ikusi, ezta nahi ere.

Patxo aspaldidanik gustatzen zitzaidan, institutuko azken kurtsoan zebilen, eta Alde Zaharrean ikusi ohi nuen lagunekin eta neskekin. Neska nagusiekin. Institutukooi sekula ez zigun puto kasurik egiten, ume mukizuak baino ez ginela uste zuen. Halaxe azaldu zidan jai-egunean, gimnasioan: institutuko neskokin ez zegoela dibertitzerik, guztiaren beldur ginela. Protestaka hasi nintzen eta neu desberdina nintzela esan nion.

Frogatzeko baietz erantzun nion komunetara joatea proposatu orduko. Patioa gurutzatu bitartean batzuk begira eta marmarrean ikusi nituen. Kaikuak.

Komunetara heldu orduko, musuka hasi zitzaidan eta egiteko murmuratu zidan. Hortxe bertan. Baietz esan nion. Zergatik ez. Nik uste guztiz itsututa geundela. Patxo komun-ontzian jesarri zen eta ni, bere magalean. Arropa ere ez genuen kendu. Zertarako. Berak zakila atera, nik kuleroak kendu, gona altxatu, eta haren gainean jesarri nintzen. Zakila barruraino sartu zen. Patxo begiak zabal-zabalik zegoen, hiltzeko zorian zirudien. Sekula ez zuela inorekin horrela egin esan zidan. Ni gorantz eta beherantz mugitzen hasi orduko korritu zen. Putakume ergela. Egin baino lehen, oso jatorra; egin ondoren, agurtu ere ez.

Horretaz gogoratu naiz gaur, institutuko patioan zuzendariarekin topo egin dudanean. Oso berandu zen eta begira geratu natzaio zer esango zidan zain. Ez dit tutik esan, baina. Eroarena egin eta patioz bestaldera joan da. Kabroia. Amarekin telefonoz hitz egin zuenetik, ez dit zuzen begiratu behin ere ez.

Ez du ur handitan sartu nahi, antza.

Joan dadila pikutara.

****Gaua***

Batzuetan Amaiak xiringa iltzatu eta negarrez ematen du gau guztia. Beste batzuetan, hormara begira geratzen da luzaro, edo sofan etzanda geldi-geldirik. Iñakik eta biok ez diogu ezer esaten, negozioz hitz egiten dugu vodka edan bitartean, edo kanutoak erre bitartean.

Batzuetan geuk ere hartzen dugu xiringa.

Gauak oso luzeak dira, eta noizean behin norbaitek ateko txirrina jo, eta Iñakik materiala saltzen dio, edo poltsa bat prestatzen du nik bezero bati eramateko. Dirua. Azken egunotan Iñakik mila aukera daudela azaldu dit: bere ustez dirua lortzea baino gauza errazagorik ez dago.

Batzuetan kalera atera, eta tabernaz taberna ematen dugu gaua.

****Eguna***

Amak ez dit ezer esan motxila betetzen hasi naizenean. Telebista aurrean jarraitu du begiak gorri-gorri eta burua bueltatu gabe.

Ez dut gauza askorik hartu: bizpahiru alkondara eta pare bat praka. Iñakirenean ez dut gehiago beharko.

Ama ez da mugitu egongela aurretik pasatu naizenean. Ez du ahoa zabaldu. Ez da sofatik altxatu.

Beno. Bost axola.

Danbateko batez itxi dut atea eta kalera irten naiz. Adio ere ez diot esan. Zertarako.

Hemendik aurrera egunak eta gauak nireak izango dira.